

Ikastolara sarrera **Ate Nagusitik** egingo da (arkutik), eta eskailerak igota **Ate Urdinetik** erdiko patiora joan beharko da. Ikasleak/familiak markatutako lekuan zain egon beharko dute segurtasuna tartea errespetatuz. Geletako sarrera-irteera patioko **Ate Beltzetik** izango da. Itxaron gunea jantoki aurreko barruko patioan izango da.

IRAILAK 7-13 BITARTEAN.

Aste honetan zehar, ikasleak 9:00-9:15 bitartean sartuko dira geletara Jantoki aurreko ate beltzetik. Tutoreak gerturatuko dira itxaron gunetara ikasleak jaso eta entregatzera. Bitartean segurtasun protokoloa beteko da.

- Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez arinago ez beranduago.
- Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile...), laguntzaile bakarrarekin etorriko dira.
- Ikaslea orduz kanpo badator, Idazkaritzatik sartuko da, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz.

Ikasleak eguerdian, **12:30** aterako dira klasetik. Ikaslea BAZKALTZEN GELDITZEN BADA irteera **14:30tan izango da**, markatutako ibilbide berdinetik.

Behin umea hartuta, ezin izango da ikastolan gelditu.

SARRERA-IRTEERA



ITXARON GUNEA



IKASGELETARA SARRERA-IRTEERA

